

Euskararen Egia



Zigor Etxeburua
KONTSEILUKO TEKNIKARIA
@ZEtxeburua

Errealitate paraleloen garaian bizi gara, teknologia digitaleko gailu berriek birtuala eskura jarri digute. Berria ez dena da errealtitatea mozarrotzeko agintariak izan duten eta berresten duten irrika. Horren erakusle euskal oasia hitzetik hortzera izatea *teleberriek*, egunero. Bada, orain, hizkuntzaren alegiazko errealtitatea eraiki nahi digute, handik eta hemendik.

Euskara, insatisfakzio batzuk gorabehera, duin omen dabil hizkuntzen txapelketan. Izango da ez ditudala betaurreko egokiak jantzi, eta ezagutzen nauenak bada, satorraren bidetik noanez, betaurrekoak erabili erabiltzen ditudala, baina ez dut hori ikusten nire egunerokoan. Nik ere nahi dut asebeteko nauen egia ofizial hori ikusi. Areago, errealtate hori bizi nahi dut, zer arraio!

Ordea, hain dira monumentalak euskararen errealtate instituzionalaren defektuak! Osakidetzak kanpaina eragingarria abiatu du, euskaldunok euskara hauta dezagun erakundearekiko harremanetarako hizkuntza gisa. Hori bera egingo balute administrazio guztiek! Baina (bai, ezin pasa bainarik gabe) zer bururatuko, gaztelania hautatzeko deia duten oihaltzarrak eskegitzea besterik. Tira, anekdota hutsa izango ahal da! Aitzitik, anekdota baino gaiztakeria da bizirauteko kinka batean diren euskarazko hedabide nazionalen duintasuna eta erreferentzial-

tasuna ekarriko liekeen publizitate instituzionaletik apurrak besterik ez ematea, eta justiziaz zor zaizkien laguntzak izoztea, bide batez *Eguna* itxi zutenen bandokoa den egunkariari diru sail galanta oparitzuz.

Defektuen artean elefanterik bada, hori *Napartheida* inposatzen duen Vasuencearen Legea da. Hortxe dakusagu pertsonen aurkako legea, egongelaren erdian, oraindik, “aldaketaren indarrek” gehiengo lortu eta bi urtera. Egia ofizialak esan digu Vasuencearen Legeak ahalbideak bermatzea! #daflipat: Ez da hain egia izango, lege hori beste tresnarik eskura ez eta, demokraziaren aurkako legea ordezkatu bitartean, eremu mistora pasatzeko eskari ulergarria egin baitute hainbat udalek. Eskari horri erantzunez, legea moldatuko du Nafarroan agintea duen laukoak, eskualde mistoa herri gehiagotara zabaltzeko. Baina aukera eskutik izanik ere, ez dirudi nafarren arteko bereizkeria inposatzen duen Vasuencearen Legea baztertu eta euskaldunoi duintasuna itzuliko digun legea egingo dutenik, laukoteko bi alderdik horixe eskatu arren.

Gauzak horrela, errealtate euskararen Egia-
ren betaurrekoetatik begiratu eta ekiten jarraitzea dagokigu. Konfiantza herritarrengan jarri, beti bezala. ■

Bi kontu argi



Edu Zelaieta
IDAZLEA

Cristina Uriarteren asmo oneko hitzak irakurri prentsa digitalean eta hurrengo egunean EAEko hezkuntza arloko sindikatu nagusiek gebarako deia entzun duzu irratan. Ezin xehero jakin, kronologiak iradokitzen duenaren ildotik, lehenbizikoaren adierazpenek zuzenean bigarren erabakia ekarri ote duten: hezkuntza sistema hobetzeaz ari zen sailburua, eta horretarako hainbat neurri aipatu ditu; Jaurlaritzak “oraindik” onartu ez dituen murrizketak salatu dituzte sindikatuek, eta horretarako huelgara deitu dute.

Afera akzio-erreakzio lege zaharraren barrenean kokatu edo ez kokatu ari zara pentsatzen sukaldean,

goizeroko ogi xigortuari marmelada eman bitartean. Nolanahi ere den, administrazioari dagokio hezkuntza politika egitea eta, beraz, besteak beste, hezkuntza arloko sindikatuekin harreman onak izatea. Horrainoko iritzia behinik behin baduzu.

Bigarren kontu bat ere argi duzu: PISA txostenaren emaitza kaskarre eragin dute sailburuaren agerraldia, komunikabideek emaitza horiek plazaratu eta ondoan; hau da, ranking batean *lortutakoaren* arrastotik mugitzen dira (batez ere) gure agintariak, eta ez, esate baterako, hezkuntza komunitatea osatzen duten eragileek hala eskatuta. ■